OINEZ *Bidean bat gara*

ERENTZUN IKASTOLA

SF SAN FERMIN IKASTOLA

NAFARROAKO IKASTOLAK



ANDRA MARI IKASTOLA ARANGOITI IKASTOLA ARGIA IKASTOLA BAZTAN IKASTOLA

ERENTZUN IKASTOLA IBAIALDE IKASTOLA IÑIGO ARITZA IKASTOLA JASO IKASTOLA

SAN FERMIN IKASTOLA GARCES DE LOS FAYOS IKASTOLA TANTIRUMAIRU IKASTOLA

LABIAGA IKASTOLA LIZARRA IKASTOLA PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA ZANGOZAKO IKASTOLA

Euskara • *Ikastolak* • *Jaia*



5 ZUZENDARIEI ELKARRIZKETA
12 ERENTZUN ETA SANFERMINEKO JUNTAK
16 GURE HELBURUAK
20 NORTZUK GARA
25 NAFARROA OINEZ AURKEZPEN EKITALDIA
29 NAFARROA OINEZEKO DENDEN INAUGURAZIOA
33 NOLA HELDU - IBILBIDEA
39 HAZI ARTEA
43 ARTEA OINEZ 2026
46 NAFARROA OINEZEKO PILOTA TXAPELKETA
49 PARIS 365en ALDEKO JANARI BILKETA
51 JUUL 2026 SARI BANAKETA
54 OINEZ KANTA
59 OINEZ TXOKOA
64 OINEZ KROSA
66 OINEZ KLIMA

ERENTZUN IKASTOLA · SAN FERMIN IKASTOLA · NAFARROAKO IKASTOLAK

ERAKUNDEAK

LAGUNTZAILEAK

KOMUNIKABIDEAK

ZUZENDARIEI ELKARRIZKETA

Nafarroa Oinez jai erraldoia antolatzea erronka handia da berez edozein ikastolarentzat. Edizio honetan, ordea, bi ikastolek (Erentzun eta San Fermin) indarrak batu dituzte elkarlanean proiektuari aurre egiteko. Halako abenturan sartzeak zer suposatu duen jakiteko, Uxue Lazkano eta Garbiñe Zulaika, hurrenez hurren, San Fermin eta Erentzun ikastoletako zuzendariekin solasaldia egin dugu, prozesuaren gazi-gozoak, euskararen egoera eta etorkizuneko proiektuak zeintzuk diren xehetzeko.

Nola sortu zen Erentzun eta San Fermin ikastolek Nafarroa Oinez elkarrekin antolatzeko erabakia?

Garbiñe Zulaika

Erentzun ikastolak erronka ekonomiko handiak ditu, eta Oinez antolatzeko nahia ez ezik, beharra ere bazuen; gure hezkuntza-kalitatea eta komunitate osoaren ongizatea bermatzeko funtsezkoa baita. Hala ere, bagenekien gure baliabideekin bakarrik ezin geniola horrelako bolumen handiko lanketa bati aurre egin. Horregatik, eskua luzatu genion San Fermin ikastolari laguntza eske.

Uxue Lazkano

Guk beti izan dugu ikuspegi irekia eta lankidetzarako joera. Erentzunen egoera eta laguntza eskaera ikusita, noski, zalantzarik gabe, baietz esan genuen. Gure burutik agian ez zen pasatzen une horretan antolatzea, baina bide horretan laguntzeko prest agertu ginen berehala.

Zer pentsatu zenuten lehenengo aldiz erronka honen berri izan zenutenean, zuzendari gisa?

Garbiñe Zulaika

Nire lehenengo inpresioa izan zen ezintasun batetik aukera berri bat irekitzen zela. Mutur batetik besterako bidea egiteko aukera ikusi nuen; lehen ezinezkoa zirudien zerbait posible egiteko bidea, hain zuzen ere.

Uxue Lazkano

Niretzat zuzendari izatea erronka berria zen aurreko ikasturtean. Zuzendaritza hartzearekin batera Oineza antolatzea erronka potoloa iruditu zitzaidan hasieran. Hala ere, hau ikastola batean egon daitekeen opari handienetako bat dela konturatu naiz. Guraso gisa parte hartua nintzen lehenago beste batzorde batzuetan, beraz, banekien zer suposatzen duen eta oso kontziente nintzen, baina gogotsu nengoen zuzendaritzaren alorretik ekiteko.

Bi ikastolaren artean Nafarroa Oinez antolatzean, zein izan da zailtasun nagusia? Eta zer deskubritzen ari zarete elkarrekin?

Garbiñe Zulaika

Zailtasun nagusia, titular gisa esateko, koordinazioa da, zalantzarik gabe. Bi errealitate, bi ikuspegi eta funtzionatzeko bi

modu oso ezberdin uztartu behar izan dira. Distantziak ere dena zailtzen du; etxeko koordinazioa bera zaila denean, bi ikastolen artekoa oso potentea izan behar da.

Garbiñe Zulaika

Ados nago. Distantziak antolaketa zailtzen du. Hala ere, alde politena jende zoragarria deskubritzea izan da. Komunitate desberdinen artean sortzen ari diren harremanak, ikasleen arteko topaketak eta elkarri egindako bisitak oso aberasgarriak izaten ari dira eta oso balorazio ona jaso dute.

Tamaina, ingurua... kontuan hartuta, bi ikastolak oso ezberdinak direla agerikoa da. Baina zertan topatu dituzue antzekotasun edo desberdintasuna aberasgarriak?

Uxue Lazkano

Tamainaz ezberdinak garen arren, ingurune linguistikoari dagokionez, agian zenbakietan ezberdinak gara baina errealitatean eta familietan antzeko egoera dugu. Antzekotasun nagusia, berriz, helburua da: proiektu beraren parte garela sentitzeak asko batzen gaitu eta asko hurbiltzen gaitu.

Garbiñe Zulaika

Egia esan, ikastolen ereduaz hitz egiten dugunean, batzuetan eredu bakar eta zurrun bat balitz bezala hitz egiten dugu, baina ikastolen barruan molde eta errealitate oso desberdinak daude, bakoitza bere ingurunera egokitua.

Eta zer ikasi duzue elkarrengandik prozesu honetan?

Garbiñe Zulaika

Erentzun bezalako ikastola baten txikitasunetik, oso aberasgarria da San Fermin bezalako komunitate handi baten antolakuntza-gaitasuna ikustea festa erraldoi honen egitekoak egituratzeko. Eta guk, gure aldetik, gure gertutasuna eta bultzada eskaintzen dugu.

Uxue Lazkano

Nik, berriz, argi ikusi dut komunitatearen tamainak ez duela bere indarra zehazten. Jakina, gurea bezalako ikastola handi batean, jende eta baliabide gehiago daude halako zerbait antolatzeko, baina ikastola txikietan sekulako indarra dagoela ere ikusi dut eta horrek asko poztu nau; dena ez da tamaina edo kopurua.

Zuen ustez, zer paper jokatzen dute gaur egun ikastolek Nafarroan eta Euskal Herrian?

Uxue Lazkano

Nafarroan euskararen normalizaziorako eta biziberritzerako giltza asko daude, eta horietako bat ikastolak dira. Ezinbesteko eragile dira euskararen transmisioan, bai Nafarroan eta baita Euskal Herri osoan ere. Euskararen alde egiten duten eragileak ez daude soberan gure egungo egoeran.



Uxue Lazkano eta Garbiñe Zulaika

Garbiñe Zulaika

Gure hizkuntza proiektuaren bitartez, gero eta ikasle gehiago ateratzen dira euskaldun gisa ikastoletatik Nafarroan. Gainera, saretzeak asko lagun dezake; ez gara 15 proiektu isolatu, sare bat osatzen dugu eta guztiak bide berean gaude euskararen alde.

Zer gertatzea gustatuko litzaizueke Nafarroa Oinezeko egunean bertan "merezi izan du" esan ahal izateko?

Uxue Lazkano

Niretzat merezi izatea ez da soilik egun bikain bat pasatzea. Jendea elkarrekin euskararen bidea egiten ikusi nahi dut, eta kontziente izatea bide hau ez dela urriaren 18an amaitzen. Asko baitago egiteko eta bidean aurrera jarraitu behar dugu. Oinezaren eguna amaituta, jendea euskararen etorkizunean eta egiteko dagoen bidean pentsatzen joatea nahiko nuke.

Garbiñe Zulaika

Nik uste dut prozesuak berak dagoeneko merezi duela. Garrantzitsua da bideaz eta prozesuaz gozatzea; festa eguna azken ginda besterik ez da. Gustatuko litzaidake leku askotatik jende ugari etortzea, egun horiek euskal nortasuna eta euskararekiko lotura aztertzeko eta indartzeko une bikainak baitira. Eragina beti da baikorra.

Antolakuntzan, zein alderdirekin ari zarete gehien gozatzen eta zerk kentzen dizue lo ordu gehien?

Uxue Lazkano

Batez ere jendearekin gozatzen ari naiz. Gure ikastolaren kokapenagatik familiak gertutik ikustea zailagoa izaten da batzuetan, baina proiektu honekin gurasoak eta langileak batzorde ezberdinetan elkarrekin lanean ikustea oso pozgarria izaten ari da. Bi ikastolako familiak eta profesionalak elkartze hori izugarria da.

Garbiñe Zulaika

Bat nator. Jendearen konpromisoak eta gerturatzeak asko aberasten nau pertsonalki. Jende asko ezagutzen ari naiz, bai gurean eta bai San Fermin ikastolan ere, eta pertsonalki asko ikasten ari naiz prozesu honekin.

Uxue Lazkano

Loa, berriz, egunak berak kentzen dit. Urte osoko lana da, jendeak indar eta espektatiba handiak jartzen ditu egun horretan, eta beldurra ematen dit eguraldi txarra egiteak edo zerbait gaizki ateratzeak jendea frustratuta utziko ote duen.

Garbiñe Zulaika

Sentipen bera dut. Gure kontrolpean ez dauden gauzek (eguraldiak eta kontrolatu ezin dugun guztiak) ematen didate beldur handiena, guk ahal dugun guztia egingo dugulako ondo atera dadin.

Oraindik zalantzatan daudenentzat, zuen ustez, zergatik babestu behar dira ikastolak eta Nafarroa Oinez?

Uxue Lazkano

Etorkizun euskaldunago, anitzago eta komunitarioago bat izateko, baita hezkuntzari Euskal Herri osoko nazio ikuspegia ematen dion eragilea delako ere.

Garbiñe Zulaika

Euskarak denok behar gaitu eta inor ez dago soberan. Lehen bezala, gaur egun ere ikastolak babestea guztiz beharrezkoa da arrazoi horiengatik guztiengatik.

Prozesu guztia amaitzen denean eta atzera begiratzean, zer gogoratzea gustatuko litzaizueke elkarrekin egindako bide honetatik?

Uxue Lazkano

Beste errealitate eta ingurune bateko ikastola gertuago ezagutzeko aukera izana gogoratuko dut. Bakoitza gure egunerokoan murgilduta gaude eta, elkarrekin egoteko foro asko ditugun arren, hau oso berezia izan da. Beste errealitate batean murgiltzea eta bertako bizitza aurrez aurre ezagutzea eta arnastea bezalakorik ez dago.

Garbiñe Zulaika

Niretzat garrantzitsuena prozesuan dena eman izana sentitzea izango da, egunak berak baldintzatu gabe. Eta, batez ere, sareko ikastola batek laguntza behar izan duenean, laguntzeko prest egon garela gogoratuko dut.

Zertara bideratuko da Nafarroa Oinezen bildutako dirua?

Uxue Lazkano

San Fermin ikastolan erronka potolo bat dugu aurretik, Lehen Hezkuntzako eraikina berritzea baitugu helburu. Oraingoz ez dugu proiektu zehatz eta itxi bat martxan jarriko, baina asmoa da dirua aurrezten joatea eraikinaren proiektuari ahalik eta azkarren ekin ahal izatea.

Garbiñe Zulaika

Gure kasuan helburua ez da eraikin berri bat berehala altxatzea, baizik eta egunerokotasunean aurrera egiteko ditugun zorrak arintzea eta bideragarritasuna ziurtatzea. Gaur egungo Nafarroako egoeran hezkuntza proiektu honen bideragarritasunari eta etorkizunari eustea da gure erronka nagusia.

ENTREVISTA A LAS DIRECTORAS DE ERENTZUN Y SAN FERMIN IKASTOLA

Organizar la fiesta gigante del Nafarroa Oinez es de por sí un gran reto para cualquier ikastola. En esta edición, sin embargo, dos ikastolas (Erentzun y San Fermin) han unido sus fuerzas para afrontar el proyecto en colaboración. Para saber qué ha supuesto adentrarse en semejante aventura, hemos mantenido una charla con Uxue Lazkano y Garbiñe Zulaika, directoras de las ikastolas San Fermin y Erentzun respectivamente, para que nos cuenten cómo han vivido todo este proceso.



¿Cómo surgió la decisión de organizar el Nafarroa Oinez de forma conjunta entre las ikastolas Erentzun y San Fermin?

Garbiñe Zulaika

La ikastola Erentzun tiene grandes retos económicos y, más allá del deseo de organizar el Oinez, tenía también la necesidad de hacerlo, ya que es fundamental para garantizar nuestra calidad educativa y el bienestar de toda la comunidad. Sin embargo, sabíamos que con nuestros propios recursos no podíamos hacer frente a un trabajo de semejante volumen. Por eso, acudimos a pedir ayuda a San Fermin Ikastola.

Uxue Lazkano

Nosotros siempre hemos tenido una visión abierta y una tendencia a la colaboración. Viendo la situación de Erentzun y su petición de ayuda, por supuesto, dijimos que sí sin dudarlo. Quizás no se nos pasaba por la cabeza organizar el Oinez en este momento, pero nos mostramos dispuestos a ayudar en ese camino de inmediato.

¿Qué pensaron por primera vez como directoras al enterarse de este reto?

Garbiñe Zulaika

Mi primera impresión fue que, a partir de una limitación o impotencia, se abría una nueva oportunidad. Vi la posibilidad de recorrer el camino de un extremo al otro; el camino para hacer posible algo que antes parecía imposible.

Uxue Lazkano

Para mí, ser directora era un nuevo reto el curso pasado. Organizar el Oinez al mismo tiempo que asumía la dirección me pareció un reto enorme al principio. Sin embargo, me he dado cuenta de que este es uno de los mayores regalos que puede haber en una ikastola. Ya había participado anteriormente como madre en otras comisiones, por lo que sabía lo que conllevaba y era muy consciente de ello, pero tenía muchas ganas de abordarlo desde el ámbito de la dirección.

Al organizar el Nafarroa Oinez entre dos ikastolas, ¿cuál ha sido la principal dificultad? ¿Y qué están descubriendo juntas?

Uxue Lazkano

La principal dificultad, por decirlo a modo titular, es sin duda la coordinación. Se han tenido que conjugar dos realidades, dos visiones y dos formas de funcionar muy diferentes. La distancia también lo dificulta todo; si la propia coordinación interna ya es difícil, la coordinación entre las dos ikastolas tiene que ser muy potente.

Garbiñe Zulaika

Estoy de acuerdo. La distancia dificulta la organización. Sin embargo, la parte más bonita ha sido descubrir a gente maravillosa. Las relaciones que se están creando entre las diferentes comunidades, los encuentros entre los alumnos y las visitas mutuas están siendo muy enriquecedores y han recibido una valoración muy positiva.

Teniendo en cuenta el tamaño, el entorno... es evidente que las dos ikastolas son muy diferentes. ¿Pero en qué han encontrado similitudes o diferencias enriquecedoras?

Garbiñe Zulaika

Aunque somos diferentes en tamaño, o en cuanto al entorno, por ejemplo, en realidad no lo somos tanto en cuanto a las familias o la situación lingüística. La principal similitud, por otra parte, es el objetivo: sentirnos parte de un mismo proyecto nos une mucho y nos acerca un montón.

Uxue Lazkano

La verdad es que, cuando hablamos del modelo de las ikastolas, a veces lo hacemos como si fuera un modelo único y rígido, pero dentro de las ikastolas existen modelos y realidades muy diversas, cada una adaptada a su entorno.

¿Y qué han aprendido la una de la otra en este proceso?

Garbiñe Zulaika
Desde la pequeñez de una ikastola como Erentzun, resulta muy enriquecedor ver la capacidad organizativa de una comunidad grande como San Fermin para estructurar las tareas de esta enorme fiesta. Y nosotros, por nuestra parte, creo que ofrecemos nuestra cercanía y nuestro impulso.

Uxue Lazkano
Yo, en cambio, he visto claro que el tamaño de la comunidad no determina su fuerza. Por supuesto, en una ikastola grande como la nuestra, hay más personas y recursos para organizar algo así, pero también he visto que en las ikastolas pequeñas hay una fuerza increíble y eso me ha alegrado mucho; el tamaño o la cantidad no lo es todo.

En su opinión, ¿qué papel juegan hoy en día las ikastolas en Navarra y en Euskal Herria?

Uxue Lazkano
En Navarra existen muchas claves para la normalización y revitalización del euskera, y una de ellas son, sin duda, las ikastolas. Son agentes indispensables en la transmisión del euskera, tanto en Navarra como en Euskal Herria. Los agentes que trabajan a favor del euskera no sobran en nuestra situación actual.

Garbiñe Zulaika
A través de nuestro proyecto lingüístico, cada vez salen más estudiantes vascoparlantes de las ikastolas en Navarra. Además, el trabajo en red puede ayudar mucho; no somos 15 proyectos aislados, formamos una red y todos estamos en el mismo camino a favor del euskera.

¿Qué les gustaría que ocurriera el mismo día del Nafarroa Oinez para poder decir “ha merecido la pena”?

Uxue Lazkano
Para mí, que merezca la pena no consiste solo en pasar un día excelente. Quiero ver a la gente recorriendo unida el camino del euskera, y que sea consciente de que este camino no termina el 18 de octubre. Porque hay mucho por hacer y debemos seguir avanzando en el camino. Una vez terminado el día del Oinez, me gustaría que la gente se fuera pensando en el futuro del euskera y en el camino que queda por recorrer.

Garbiñe Zulaika
Yo creo que el proceso en sí ya merece la pena. Es importante disfrutar del camino y del proceso; el día de la fiesta es solo la guinda final. Me gustaría que viniera mucha gente de muchos lugares, ya que esos días son momentos excelentes para analizar y fortalecer la identidad vasca y el vínculo con el euskera. El impacto siempre es positivo.

En la organización, ¿con qué aspectos están disfrutando más y qué les quita más horas de sueño?

Uxue Lazkano
Sobre todo estoy disfrutando con la gente. Debido a la ubicación de nuestra ikastola, a veces resulta más difícil ver de cerca a las familias, pero con este proyecto ver a familias y profesionales colaborando juntos en diferentes comisiones está siendo muy satisfactorio. Esa unión de familias y profesionales de ambas ikastolas es increíble.

Garbiñe Zulaika
Coincido. El compromiso y el acercamiento de la gente me enriquecen mucho a nivel personal. Estoy conociendo a mucha gente, tanto en la nuestra como en la ikastola San Fermin, y personalmente estoy aprendiendo mucho con este proceso.

30 años EXTINIRUÑA
SISTEMAS CONTRA INCENDIOS Y SEGURIDAD

Uxue Lazkano
El sueño, en cambio, me lo quita el día en sí. Es un trabajo de todo un año, la gente deposita mucha fuerza y grandes expectativas en ese día, y me da miedo que el mal tiempo o que algo salga mal deje a la gente frustrada.

Garbiñe Zulaika
Tengo la misma sensación. Las cosas que no están bajo nuestro control (el tiempo y todo lo que no podemos controlar) son las que más miedo me dan, pero haremos todo lo posible para que salga bien.

Para quienes todavía tienen dudas, en su opinión, ¿por qué se deben apoyar las ikastolas y el Nafarroa Oinez?

Uxue Lazkano
Para tener un futuro más euskaldun, diverso y comunitario, y también porque es un agente que aporta a la educación una perspectiva nacional de todo el País Vasco.

Garbiñe Zulaika
El euskera nos necesita a todos y todas; y nadie sobra. Al igual que antes, hoy en día también es totalmente necesario apoyar a las ikastolas por todas esas razones.

Cuando termine todo el proceso y miren hacia atrás, ¿qué les gustaría recordar de este camino recorrido juntas?

Garbiñe Zulaika
Recordaré haber tenido la oportunidad de conocer más de cerca una ikastola de otra realidad y entorno. Cada una está inmersa en su día a día y, aunque tenemos muchos foros para estar juntas, esto ha sido muy especial. No hay nada como sumergirse en otra realidad y conocer y respirar su vida de primera mano.

Uxue Lazkano
Para mí lo más importante será sentir que lo hemos dado todo en el proceso, sin que el día en sí condicione esa sensación. Y, sobre todo, recordaré que cuando una ikastola de la red ha necesitado ayuda, hemos estado dispuestos a ayudar.

¿A qué se destinará el dinero recaudado en el Nafarroa Oinez?

Uxue Lazkano
En San Fermin Ikastola tenemos un gran reto por delante, ya que nuestro objetivo es renovar el edificio de Educación Primaria. Por ahora, no vamos a poner en marcha un proyecto concreto y cerrado, pero la intención es ir ahorrando dinero para poder abordar el proyecto del edificio lo antes posible.

Garbiñe Zulaika
En nuestro caso el objetivo no es levantar un edificio nuevo de inmediato, sino aliviar las deudas que tenemos para seguir adelante en el día a día y asegurar la viabilidad. En la situación actual de Navarra, mantener la viabilidad y el futuro de este proyecto educativo es nuestro principal reto.

sisnet.
Internet eta telefoniako zure operadore nafarra
Mugikorra
www.sisnet.es • 948 07 80 87 • Jar zaitez gurekin harremanetan eta informatu zaitez

JUNTAK

ERENTZUN ETA SAN FERMIN IKASTOLAKO JUNTAK

1965eko urrian euskararik gabe Nafarroa arraroa sentitzen zuten euskaltzale talde batek bidean bat egin eta lehenengo ikastolaren ibilbideari hasiera eman zioten, euskaraz ere hezteko aukera egon zitekeela aldarrikatuz.

Urte guzti hauetan **ikastolok sare zabal eta sendo bat ehundu dugu, ameslari haien ametsak** hari finetatik tiraka **errealitate bihurtzeraino.**

Gure oinarriak —**EUSKARA, AUZOLANA, KONPROMISOA, ELKARTASUNA, KOOPERAZIOA, PARTE-HARTZEA, KOMUNITATEA eta HEZKUNTZA**— ahaztu gabe egin dugu aurrera. Belaunaldiz belaunaldi, gurera batu zaizkigunen irekierak eta lankidetzak bidea hobetzen lagundu du. **Gure nortasunaren sustraia euskararen aldeko konpromisoa da. Gure indargunea komunitatea da. Hezkuntzaren bidez etorkizun hobe bat eraikitzeko nahiak batzen gaitu.** Iragana eta etorkizuna uztartuz, bidea egiten dugu.

Eta gaur, ibilbide luze horren fruitu, **euskarari bere lekua aitortu, maite, zaindu eta etorkizunera eramateko ametsari eusten diogun ameslari asko gara. Atzoko ametsak gaurko konpromiso bihurtu ditugu,** eta gaurko konpromisoak biharko bidea marrazten du.

Horregatik, 2026 honetan, urrats bat harago joatea erabaki dugu. Orain arteko **batasunetik elkarlanera egin dugu jauzi;** sinbolotik ekintzara, elkarren ondoan egotetik elkarrekin bidea egitera. Eta bide horretan, **bi ikastolok —Erentzunek eta San Ferminek—** eskutik heldu, indarrak batu eta **BIDEAN BAT GARELA** erakutsi nahi izan dugu.

Gure sustrai eta balio berberek gidatuta, **elkarrekin** egin dugu bidea, **2026ko urrian Nafarroa osoa euskararen inguruan elkartuko duen festarik handiena antolatzeko.** Izan ere, badakigu elkarrekin amesten dugunean, urrunago iristen garela; eta elkarrekin egiten dugunean, ametsak errealitate bihurtzen direla.

Bernardo Atxagaren (1992) hitzak gogora ekarriz —**"Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum, ze(in) arraroa euskararik gabe Nafarroa"**—, aurten inoiz baino ozenago esan nahi dugu: **BIDEAN BAT GARA.**

Horregatik, **gurekin bat egiteko gonbita luzatu nahi dizugu. Euskara maite dugun, zaindu nahi dugun eta belaunaldiz belaunaldi bizirik nahi dugun guztiona baita bide hau.** Ez dezagun Nafarroa arrarotu; egin dezagun elkarrekin euskararen aldeko bidea.

BIDEAN BAT GARA. Eta euskarak euskaltzale guztiok behar gaitu, elkarrekin, **OINEZ,** aurrera egiteko.





JUNTAS DE ERENTZUN Y SAN FERMIN IKASTOLA

En octubre de 1965 un grupo de euskaltzales que sin el euskera sentía a Navarra incompleta se unieron y comenzaron la andadura de la primera ikastola, reivindicando la posibilidad de educar también en euskera.

Durante todos estos años las ikastolas hemos tejido una red amplia y sólida, hasta el punto de, tirando de finos hilos, hacer realidad los sueños de aquellas personas soñadoras.

Hemos avanzado sin olvidar nuestras bases: EUSKERA, AUZOLAN, COMPROMISO, SOLIDARIDAD, COOPERACIÓN, PARTICIPACIÓN, COMUNIDAD Y EDUCACIÓN. De generación en generación, la apertura y la colaboración de las personas que se han unido a nosotras y nosotros ha contribuido a mejorar el camino. La raíz de nuestra identidad es el compromiso por el euskera. Nuestra fortaleza es la comunidad. Nos une el deseo de construir un mañana mejor a través de la educación. Aunando pasado y futuro, hacemos camino.

Y hoy, fruto de esa larga trayectoria, somos muchas las personas soñadoras que mantenemos el sueño de reconocer, querer, cuidar y darle futuro al euskera. Hemos convertido los sueños del ayer en compromisos de hoy, y el compromiso de hoy dibuja el camino de mañana.

Por eso, este 2026, hemos decidido ir un paso más allá. Hemos saltado de la unión a la colaboración; del símbolo a la acción, de la yuxtaposición a recorrer un camino en común. Y en ese camino, dos ikastolas, Erentzun y San Fermín, hemos querido darnos la mano, aunar fuerzas y demostrar que SOMOS UNO EN EL CAMINO.

Guiadas por nuestras mismas raíces y valores, hemos recorrido juntas el camino para organizar en octubre de 2026 la mayor fiesta en torno al euskera que unirá a toda Navarra. Porque sabemos que cuando soñamos en común, llegamos más lejos; y cuando lo hacemos así, los sueños se hacen realidad.

Recordando las palabras de Bernardo Atxaga (1992) — «Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum, ze(in) arraroa euskararik gabe Nafarroa» —, este año queremos decir más alto que nunca: BIDEAN BAT GARA.

Por ello, te invitamos a unirte a nosotras y nosotros. Porque este camino es de todas las personas que amamos el euskera, lo queremos cuidar y lo queremos vivo de generación en generación. No dejemos Navarra incompleta; recorramos juntas el camino a favor del euskera.

SOMOS UNO EN EL CAMINO. Y el euskera nos necesita a todas las personas euskaltzales para avanzar en común.










GURE HELBURUAK



2026ko Nafarroa Oinez honetan **jauzi kualitatibo bat** eman nahi dugu gure herrialdean antolatzen den euskararen festarik handienean, euskaltzale guztion topagunea izan dadin.


Antolaketari dagokionez ere, jauzi bat eman dugu, Nafarroa Oinez berezi hau bi ikastolaren artean antolatu baitugu: Vianako Erentzun Ikastola eta Zizur Txikiko San Fermin Ikastola. Hautatu dugun leloak erabaki horren zergatia ongi azaltzen du: **Bidean bat gara.**

Eta, Nafarroa Oinez honetan, bat egiten dugu honako printzipio eta helburuekin

En este Oinez 2026 queremos dar un **salto cualitativo** *en la mayor fiesta del euskera que se celebra en Navarra, para que se convierta en un punto de encuentro de todas las personas euskaltzales.*

También en lo que respecta a la organización hemos dado un paso adelante, ya que este Nafarroa Oinez tan especial lo hemos organizado entre dos ikastolas: Erentzun Ikastola de Viana y San Fermín Ikastola de Cizur Menor. El lema que hemos elegido explica perfectamente el porqué de esta decisión: **en el camino somos uno.**

Y, en este Nafarroa Oinez, hacemos nuestros los siguientes principios y objetivos



1

SAREA GARA: Ikastola guztiak bidean bat gara eta elkartasunezko sarea osatzen dugu.

SOMOS RED: Todas las ikastolas formamos parte del mismo camino y constituimos una red basada en la solidaridad.

2

2.ETORKIZUNARI BEGIRATZEN DION PROIEKTUA GARA:
Azken 60 urteko ibilbidean pilatutako esperientzia oinarri hartuta, etorkizunera begira dagoen egitasmoa gara.

SOMOS UN PROYECTO QUE MIRA AL FUTURO:
Partiendo de la experiencia acumulada a lo largo de los últimos 60 años, somos un proyecto que mira hacia el futuro.

3

EUSKARARENDAKO EZINBESTEKOAK GARA:
Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan zutabe nagusietako bat gara, eta hizkuntzak gure ekarpena behar du.

SOMOS IMPRESCINDIBLES PARA EL EUSKERA:
Somos uno de los pilares fundamentales en la transmisión del euskera y de la cultura vasca, y la lengua necesita nuestra aportación.

4

HERRIARENGANDIK HERRIARENDAKO SORTUAK GARA:
Herriak eta herritarrentzat sortutako proiektua gara, eta berezko izaera herrikoia sendotzea dugu helburu.

HEMOS SIDO CREADOS POR Y PARA EL PUEBLO:
Somos un proyecto creado por y para el pueblo, y nuestro objetivo es afianzar nuestra identidad.

5

HEZKUNTZAK MUGITZEN GAITU:
Hezkuntza-proiektu propioa dugu, eta hori etengabe aberasten eta hornitzen jarraitu nahi dugu.

LA EDUCACIÓN NOS MUEVE:
Contamos con un proyecto educativo propio y queremos seguir enriqueciéndolo y dotándolo de nuevos recursos de manera constante.

6

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEN DITUGU: Nafarroan euskara berreskuratzeko sortu ginen, eta euskaldunon hizkuntza-eskubideen eta euskararen normalizazioaren alde lanean dihardugu.

REIVINDICAMOS LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS:
Nacimos para contribuir a la recuperación del euskera en Navarra y seguimos trabajando por los derechos lingüísticos de las personas euskaldunes y por la normalización del euskera.

7

GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA DUGU:
Egungo gizartearen nahiekiko eta kezkekiko konpromisoa berresten dugu.

ESTAMOS COMPROMETIDOS CON LA SOCIEDAD:
Reafirmamos nuestro compromiso con las inquietudes, aspiraciones y preocupaciones de la sociedad actual.

8

GURE NORTASUNA INDARTU NAHI DUGU:
Ikastolen proiektuaren berezko izaera kooperatibo eta solidarioa sendotu nahi dugu.

QUEREMOS REFORZAR NUESTRA IDENTIDAD:
Queremos fortalecer el carácter cooperativo y solidario propio del proyecto de las ikastolas.

Bidean bat gara

Gure leloak bi kontzeptu irudikatu nahi ditu: **etorkizuna eta elkarlana**. Hain zuzen, bidean elkarrekin aurrera egitearen garrantzia azpimarratu nahi du. Horren erakusgarri, Oinez berezi hau bi ikastolen artean antolatzea, bi tamaina eta errealitate ezberdinak ditugunok, baina helburu berbera: Nafarroan **euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan aurrera egitea.**

60ko eta 70eko hamarkadetan jaiotako lehenengo ikastolak helburu horrekin sortu ziren eta, gaur egun ere, xede horrek indarrean jarraitzen du. Zorionez, bide horretan ez gaude bakarrik. Hezkuntza arloan bertan eta gizarteko beste esparru anitzetan baditugu **euskararen alde lanean ari diren bidelagunak.**

Euskararen etorkizunak indarrak biltzea eskatzen du. Euskarak batzen gaitu eta bidean aurrera egiteko euskaldun, euskaltzale eta eragile **guztiok gara ezinbestekoak.** Aditz forma pluralak horixe adierazi nahi du, **erronka kolektiboa** daukagula aurretik, elkarlanean jorratu beharrekoa: euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzea, indarrean dagoen zonifikazioa bertan behera uztea eta, finean, euskararen ezagutza eta erabilera lau haizetara zabaltzea.

Somos uno (Nos unimos) en el camino

Nuestro lema quiere representar dos conceptos: **el futuro y la colaboración.** *Precisamente, pretende destacar la importancia de avanzar juntos en el camino. Como muestra de ello, este Oinez tan especial lo estamos organizando conjuntamente entre dos ikastolas que partimos de tamaños y realidades diferentes, pero con un mismo objetivo: seguir avanzando en Navarra en el* **proceso de recuperación y normalización del euskera.**

Las primeras ikastolas nacidas en las décadas de los 60 y 70 surgieron con ese objetivo y, a día de hoy, ese propósito sigue plenamente vigente. Afortunadamente, no estamos solas en este camino. Tanto en el ámbito educativo como en muchos otros ámbitos de la sociedad contamos con **compañeros y compañeras de camino que trabajan en favor del euskera.**

El futuro del euskera exige sumar fuerzas. El euskera nos une y, para seguir avanzando por esta senda, **todas las personas euskaldunes, euskaltzales y agentes sociales somos imprescindibles.** *Tenemos por delante un reto colectivo que debemos abordar conjuntamente: garantizar los derechos lingüísticos de las personas euskaldunes, poner fin a la zonificación y, en definitiva, promover el conocimiento y el uso del euskera.*

GURE LOGOA

Gure leloak dioen moduan etorkizunari itxaropenez begiratu nahi diogu, baina nondik gatozen ahaztu gabe. Horrexegatik, aurtengo logotipoa **gure iraganetik eta euskaldun guztiok batzen gaituen elementu batetik abiatu da: Irulegiko Eskua.**

E letraren formak jatorrizko eskuaren ertz irregularrak eta izaera arkaikoa gordetzen ditu, eta diseinuak bidea ireki zutenen ondarea eta herentzia historikoa gogora ekarri nahi du. **Gure arbasoen lekukoa jasotzen dugu, bidean aurrera jarraitzeko konpromisoarekin.**

Bestalde, eskua **elkartasunaren eta lankidetzaren ikurra** ere bada, eta hortaz, euskaltzale guztiok eskuz esku aritzera luzatu nahi dugun eskua da. E-z hasten dira Euskara, Elkartasuna, Elkarlana, Elkarrekin, Etorkizuna... Horrela erdietsiko baitugu euskararen normalizazioa. Era berean, logoan, sotilki, bi eskuren arteko lotura irudikatzen da, batasunaren ideia sendotuz eta edizio honetako bereizgarria gogora ekarriz: bi ikastolen arteko lankidetza Nafarroa Oinez antolatzeko.



Logoak “Oinez” hitzaren erdigunea hartzen du, hori baita gu guztion egitasmo komuna. Euskaltzale guztiok elkartzen eta etorkizunera eramaten gaituena. **OINEZ baita ikastolen proiektu kolektibo baten izen eta euskarri:** gure hizkuntza eta kulturaren transmisioarena, konpromisoarena eta batasunarena.

NUESTRO LOGO

Como dice nuestro lema, queremos mirar al futuro con esperanza, pero sin olvidar de dónde venimos. Por eso, el logotipo de este año **parte de nuestro pasado y de un elemento que nos une a todos los euskaldunes: la Mano de Irulegi.**

La forma de la letra E conserva los bordes irregulares y el carácter arcaico de la mano original, y el diseño quiere evocar el legado y la herencia histórica de quienes abrieron el camino. **Recogemos el testigo de nuestros antepasados, con el compromiso de seguir avanzando en el camino.**

Por otro lado, la mano es también un **símbolo de solidaridad y colaboración** *y, por tanto, es la mano que queremos tender para que todas las personas euskaltzales trabajemos codo con codo. La E es la inicial de Euskara, Elkartasuna, Elkarlana, Elkarrekin, Etorkizuna... Y es así como lograremos la normalización del euskera. Asimismo, en el logo se representa sutilmente el vínculo entre dos manos, reforzando la idea de unidad y recordando el rasgo distintivo de esta edición: la colaboración entre dos ikastolas para organizar Nafarroa Oinez.*

El logo ocupa el centro de la palabra “Oinez”, porque ese es nuestro proyecto común. Lo que reúne a todas las personas euskaltzales y nos impulsa hacia el futuro. **OINEZ es también el nombre y el soporte del proyecto colectivo de las ikastolas:** *el de la transmisión de nuestra lengua y nuestra cultura, el compromiso y la unidad.*

NORTZUK GARA?

Erentzun Ikastola es una cooperativa de familias situada en Viana, fundada en 1978 con 17 alumnos y alumnas. La promoción del euskera y de la cultura vasca, la educación integral y el compromiso con la comunidad constituyen nuestros principales pilares. Nacimos con el objetivo de recuperar y normalizar el euskera en nuestro entorno, incidiendo en todo el proceso educativo del alumnado e integrando nuestra lengua en su socialización.

Estas son nuestras principales características y algunos de nuestros hitos más destacados:

• Comunidad y carácter referente: El euskera es el corazón de nuestro proyecto educativo. Actualmente reunimos a más de 120 alumnos y alumnas y a 96 familias. A lo largo de nuestros 47 años de trayectoria, nos hemos convertido en el único centro de referencia de Viana que ofrece el modelo D, y desde él promovemos el uso y la transmisión de la lengua tanto en Viana como en las localidades de su entorno.

• Dinamización cultural y valores: Más allá del ámbito educativo, promovemos la igualdad, la inclusión y la justicia social, en colaboración con otros agentes de la localidad. Somos un agente activo de dinamización cultural en Viana y participamos en la organización de fiestas y tradiciones locales, como Olentzero, Santa Águeda, festivales de danza o la feria de artesanía.

ERENTZUN IKASTOLA

Erentzun Ikastola Vianan kokatutako guraso kooperatiba bat da, 1978an 17 ikaslerekin sortua. Euskararen eta euskal kulturaren sustapena, hezkuntza integrala eta komunitatearekiko konpromisoa dira gure oinarri nagusiak. Gure ingurunean euskara berreskuratu eta normalizatzeko haziak gara, ikasleen hezkuntza-prozesu osoan eraginez eta gizarteratzean gure hizkuntza txertatuz.

Hona hemen gure ezaugarri eta mugarri nagusiak:

• Komunitatea eta Erreferentzialtasuna: Euskara da gure hezkuntza-proiektuaren bihotza. Gaur egun, 120 ikasle baino gehiago eta 96 familia biltzen ditugu. Gure 47 urteko ibilbidean, Vianan D eredua eskaintzen duen erreferente bakarra bihurtu gara, eta haren bidez Viana eta inguruko herrietan hizkuntzaren erabilera eta transmisioa sustatzen ditugu.

• Kultur Dinamizazioa eta Balioak: Hezkuntzatik harago, berdintasuna, inklusioa eta gizarte justizia sustatzen ditugu, herriko beste eragileekin elkarlanean. Vianako kultur dinamizatzaile aktiboa gara eta herriko jai zein ohiturak antolatzen ditugu (Olentzero, Agate Deuna, dantza jaialdiak edo artisautza azoka).

sisnet.
Internet eta telefoniako zure operadore nafarra
Internet
www.sisnet.es • 948 07 80 87 • Jar zaitez gurekin harremanetan eta informatu zaitez

SAN FERMIN IKASTOLA

San Fermin Ikastola 1965ean herritik sortutako kooperatiba bat da, eta gaur egun Nafarroako ikastolarik handiena gara. 1.500 ikasle inguru eta 1.000 familia baino gehiagoko komunitatea biltzen dugu. Gure xede nagusia heziketa integrala, pertsonalizatua eta euskal kulturan errotua eskaintzea da, aldi berean mundu zabalari irekita eta ikaslea beti erdigunean jarriz.

Hona hemen gure ezaugarri eta mugarri nagusien laburpena:

• Hezkuntza Proiektua eta Berrikuntza: Berrikuntza pedagogikoari bide ematen dion kultura sortzailea eta berezko kudeaketa eredua garatu ditugu, gizartea hobetzeko gaitasunak dituzten pertsona euskaldun eleanitzak hezteko.

• Elkartasuna: Gure ibilbidean eskuratutako esperientzia eta emaitzak hezkuntza-proiektuaren zerbitzura jartzen ditugu, beste ikastola batzuei laguntza eskainiz.

San Fermin Ikastola es una cooperativa creada en 1965 y, actualmente, somos la ikastola más grande de Navarra. Nuestra comunidad está formada por alrededor de 1.500 alumnos y alumnas y más de 1.000 familias. Nuestro principal objetivo es ofrecer una educación integral, personalizada y arraigada en la cultura vasca, al mismo tiempo abierta al mundo y situando siempre al alumnado en el centro.

Estas son nuestras principales características y algunos de nuestros hitos más destacados:

• Proyecto educativo e innovación: Hemos desarrollado una cultura creativa que impulsa la innovación pedagógica y un modelo propio de gestión, con el objetivo de formar personas euskaldunes y plurilingües, capacitadas para contribuir a la mejora de la sociedad.

• Solidaridad: Ponemos la experiencia y los resultados adquiridos a lo largo de nuestra trayectoria al servicio del proyecto educativo, ofreciendo apoyo a otras ikastolas.

SAKANA group
www.sakanacoop.com
Lakuntza, Nafarroa

ERENTZUN IKASTOLA

2016-2019
Europako "Keycolab" eta "Teachcom" Erasmus+ proiektuetan parte hartu genuen.
Participamos en los proyectos europeos Erasmus+ Keycolab y Teachcom.

2016
Lodosako Ibaialde Ikastolarekin batera Nafarroa Oinez antolatu genuen, eta KEI-PCI Kalitate ziurtagiria lortu.
Organizamos Nafarroa Oinez junto con Ibaialde Ikastola de Lodosa y obtuvimos la certificación de calidad KEI-PCI.

2013
"Longar" proiektu berritzailea sortu genuen, konpetentzien lanketa eta ebaluaziorako.
Creamos el innovador proyecto Longar, orientado al desarrollo y evaluación de competencias.

2011
Teknologia berrien ezarpenari esker, estatuko "Eskola 2.0" zigilu bereizgarria jaso genuen.
Gracias a la implantación de las nuevas tecnologías, obtuvimos el distintivo estatal Escuela 2.0.


2007
Bigarren Nafarroa Oinez festa antolatu genuen, instalazioak handitzeko.
Organizamos por segunda vez Nafarroa Oinez, con el objetivo de ampliar las instalaciones.

2006
Nafarroako Gobernuak ikastola legeztatu eta kontzertatu zuen
El Gobierno de Navarra legalizó y concertó la ikastola.

1995
Kuetoko gainean eraikitako ikastola berriaren inaugurazioa.
Inauguración de la nueva ikastola construida en el alto de Kueto.

1992
Vianan egindako lehen Nafarroa Oinez festa, parte-hartze historikoa izan zuena.
Celebración del primer Nafarroa Oinez en Viana, con una participación histórica.

1978
Ikastolaren sorrera eta lehen irekiera
La ikastola inició su andadura



SF SAN FERMIN IKASTOLA

2018
Gure egitasmo pedagogikoan oinarritutako espazio berriak sortu genituen Haur Hezkuntzarako.
Creamos nuevos espacios para Educación Infantil basados en nuestro proyecto pedagógico..

2014
Konfiantzaren Pedagogiarekin lanean hasi ginen, Euskal Herriko beste hainbat ikastolarekin batera.
Comenzamos a trabajar con la Pedagogía de la Confianza, junto con otras ikastolas de Euskal Herria.

2012
Bigarren aldiz antolatu genuen Nafarroa Oinez festa, “Kolore&Hitz" lelopean.
Organizamos por segunda vez Nafarroa Oinez, bajo el lema Kolore&Hitz.

2004
Europako proiektuak garatzen hasi ginen (Erasmus, Comenius, Socrates) eta Espainiako "Premio Nacional de Buenas Prácticas de Convivencia" saria jaso genuen, gatazkak kudeatzeko eta bizikidetza lantzeko planarengatik.
Comenzamos a desarrollar proyectos europeos —Erasmus, Comenius y Socrates— y recibimos el Premio Nacional de Buenas Prácticas de Convivencia por nuestro plan de gestión de conflictos y trabajo de la convivencia.

2003-2004
Barne-antolaketan aldaketa sakonak egin ziren, ikaslearen garapen integrala eta pertsonalizatua bermatzeko sistema propioa sortuz.
Se llevaron a cabo importantes cambios en la organización interna, creando un sistema propio destinado a garantizar el desarrollo integral y personalizado del alumnado.

2000
Nafarroa Oinez festa antolatu genuen.
Organizamos Nafarroa Oinez.

1990
Unibertsitatera sartzeko froga euskaraz izatea lortu ostean, UBI ezarri genuen 32 ikaslerekin.
Tras lograr que la prueba de acceso a la universidad pudiera realizarse en euskera, implantamos COU con 32 alumnos y alumnas.

1978
BBB ikasketak ezarri ziren lehen aldiz, eta Nafarroan Bigarren Hezkuntzako ikasketak euskaraz eskaintzen zituen ikastetxe bakarra bihurtu ginen.
Se implantaron por primera vez los estudios de BUP y nos convertimos en el único centro de Navarra que ofrecía estudios de Educación Secundaria en euskera.

1965
Ikastolak bere ibilbidea abiatu zuen.
La ikastola inició su andadura



NAFARROA OINEZ 2026 AURKEZPEN EKITALDIA



Vianak Nafarroa Oinez 2026ko aurkezpen hunkigarria hartu zuen "Bidean bat gara" lelopean.

2026ko Nafarroa Oinez aurkeztu zen Vianan, martxoaren 27an. Ekitaldiak Vianako Kultur Etxean bildu zituen Vianako Erentzun eta Zizur Txikiko San Fermin Ikastolak, aurtengo edizioko data, leloa eta babesleen berri eman zutelarik. Herritar eta lagun ugari bertaratu ziren, euren babesa erakutsiz. Ekitaldia "Bidean bat gara" lelopean egin zen, euskararen festa handia 2026ko urriaren 18an ospatuko zela iragarriz.

Guztiok beharrezko garen puzzlea.

Aurkezpenari hasiera emateko, bi ikastoletako ikasleek aurtengo leloarekin osatutako puzzlea eraiki zuten. Anabel Arraiza eta Martxelo Sotes aurkezleek azpimarratu zutenez, "gure hizkuntzak pieza guztiak beharrezko ditu, pieza guztiak baitira bata bestearen osagarri". Era berean, Korrika eta Nafarroa Oinez alderatu zituzten, biek euren historia luzean "ttipi-ttapa" egindako bidea gogora ekarriz, eta euskararen aldeko bidean bat egiteak duen garrantzia nabarmenduz.

Euskararen normalizazioa eta etorkizuneko proiektua Nafarroan.

Ekitaldian Marta Tejadak, Erentzun ikastolako lehendakariak, eta Uxue Lazkanok San Fermin Ikastolako zuzendariak, hartu zuten hitza. Bi bozeramaileek aurtengo Oinezen lehentasunezko helburua azaldu zuten: Nafarroan euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan aurrera egitea. Ikastolen sorreratik igarotako sei hamarkadetan egindako lana eta jasotako "fruituak" txalotu bazituzten ere, oraindik "bide luzea" egiteke dagoela gaineratu zuten. Horregatik, ikastolen proiektuak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatzeko "etorkizuneko proiektua" izaten jarraitzen duela berretsi zuten.
Bide horretan, Nafarroan euskararen alde lan egiten duten guztiak elkarrekin eta elkarlanean aritzera deitu zituzten, euskararentzat etorkizun oparoa ereiteko asmoz, 2026ko Nafarroa Oinez euskaldun eta euskaltzale guztien topagune izan dadin.

Arropa bilduma berria: Irulegiko Eskutik eratorritako modernotasuna.

Ekitaldiaren unerik ikusgarrienetakoa izan zen aurtengo Oinezerako diseinatutako arroparen desfilea. Dozenaka ikasle, guraso, irakasle eta hezkuntza komunitateko kideez gain, Vianako elkarte sozial eta kirol-talde ugarik ere parte hartu zuten pasarelan (Adacen, Aspace, Down Sindromearen Elkartea, Partaide, Zaporeak, Ultreya Berri, Garrayoa Antzerki Taldea, Vianako Jubilatuen Elkartea, Club Atlético Vianés, Viana Trekking eta AIKE).

Erakutsitako jantzi eta diseinuetan, aurtengo leloaz gain, logo berezia nabarmendu zen, Irulegiko Eskutik eratorritako "E" hizkia sinbolo moderno eta sotil bihurtuta erakusten duena.

Ekitaldia giro ezin hobean eta dei zabala eginez amaitu zen: euskaltzale orok "kamiseta soinean eta euskara ahoan".



OINEZ 2026 ZIZUR NAGUSIA - ARDOI URRIAK 18

¡ANÍMATE A VISITAR EL ÁREA DE DIARIO DE NOTICIAS!
con hinchables y más sorpresas

área 1 gunea

DIARIO DE NOTICIAS GUNEA EZAGUTZERA ANIMA ZAITEZ!
puzgarriak eta ustekabe gehiago

SF

ARDOI
Parque Luis Ibero

Diario de Noticias
Zer irakurri, hura izan

noticias GRUPO TALDEA

ACTO DE PRESENTACION DEL NAFARROA OINEZ 2026

Viana acogió una emotiva presentación del Nafarroa Oinez 2026: "Bidean bat gara"

El Nafarroa Oinez 2026 se presentó en Viana el 27 de marzo, en un acto que reunió en la Casa de Cultura de Viana a las ikastolas Erentzun de Viana y San Fermín de Zizur Txiki, y en el que dieron a conocer la fecha, el lema y los patrocinadores de esta edición del Oinez. Numerosos vecinos y amigos acudieron a la cita mostrando su apoyo. El acto se desarrolló bajo el lema "Bidean bat gara" (somos uno en el camino), anunciando que la gran fiesta del euskera en Navarra se celebraría el 18 de octubre de 2026.

Un puzzle en el que todos seamos necesarios.

La presentación comenzó con la construcción de un puzzle por parte de los alumnos de ambas ikastolas con el lema de este año. La presentación corrió a cargo de Anabel Arraiza y Martxelo Sotes, que destacaron que "nuestro idioma necesita todas las piezas, porque todas ellas se complementan". Asimismo, compararon la Korrika con el Nafarroa Oinez, rememorando el camino recorrido por ambos en su larga historia "ttipi-ttapa", y destacaron la importancia de confluir en el camino a favor del euskera.

Normalización del euskera y proyecto de futuro en Navarra.

En el acto tomaron la palabra Marta Tejada, presidenta de la ikastola Erentzun, y Uxue Lazkano, directora de la Ikastola San Fermín. Ambas portavoces explicaron el objetivo prioritario de Oinez de este año: avanzar en el proceso de recuperación y normalización del euskera en Navarra.

Aunque aplaudieron el trabajo realizado y los "frutos" recibidos en las seis décadas transcurridas desde la fundación de las ikastolas, remarcaron el "largo camino por recorrer". Por ello, reiteraron que el proyecto de las ikastolas sigue siendo "un proyecto de futuro" para garantizar la transmisión del euskera y la cultura vasca.

Siguiendo el "camino", llamaron a todos los que trabajan a favor del euskera en Navarra a trabajar juntos y en colaboración, con el objetivo de sembrar un futuro prometedor para el euskera, de manera que el Nafarroa Oinez de 2026 sea un punto de encuentro de todos los euskaldunes y euskaltzales.

Nueva colección de ropa: Modernidad derivada de la Mano de Irulegi.

El momento más vistoso del evento fue el desfile de ropa diseñada para el Oinez de este año. Además de decenas de alumnos, padres, profesores y miembros de la comunidad educativa, participaron en la pasarela numerosas asociaciones sociales y deportivas de Viana (Adacen, Aspace, Asociación del Síndrome de Down, Partaide, Zaporeak, Ultreya Berri, Garrayoa Antzerki Taldea, Asociación de Jubilados de Viana, Club Atlético Vianés, Viana Trekking y AIKE).

En los trajes y diseños exhibidos, además del lema de este año, destacó el peculiar logo, que muestra la letra "E" derivada de la mano de Irulegi convertida en un símbolo moderno y sutil.

El acto finalizó en un ambiente inmejorable y con un amplio llamamiento: todo euskaltzale "vestido con la camiseta y con el euskera en la boca".



ORAA
GRÚAS Y TRANSPORTES
www.oraa.eu
948 562 105 · ALTSASU





NAFARROA OINEZ 2026ko DENDEN INAUGURAZIOA



Arropa eta material esklusiboaren bilduma osatua eta zaindua eskainiko du dendak, bi ikastolek proiektu partekatuaren sinbolo gisa diseinatua. Ez da arropa bakarrik: nortasun adierazpen bat eta "Bidean bat gara" leloaren isla da.

Aurten, Nafarroa Oinezek bi denda izan ditu, bat Vianan, urtearen lehen zatian irekita egon zena, eta bestea Iruñean, Eguberri edo San Fermin egun seinalatuetarako irekita egon zen.

Azaroaren 23an, ofizialki inauguratu dute Nafarroa Oinez 2026ko denda Vianan. Irekieraren harira, Erentzun eta San Fermin Ikastolek jai egitarau oparoa prestatu zuten: gaitero, erraldoi eta dantzariekin kalejira, dendaren irekiera ofiziala bi ikastoletako ordezkarien eskutik, bi ikastetxeetako dantzarien emanaldia, hamaiketakoa eta, amaitzeko bingo solidarioa.

Arropa eta material esklusiboaren bilduma osatua eta zaindua eskainiko du dendak, bi ikastolek proiektu partekatuaren sinbolo gisa diseinatua. Ez da arropa bakarrik: nortasun adierazpen bat eta "Bidean bat gara" leloaren isla da.

Horrela, diseinuek tamaina desberdinetan aurkezten dute logo korporatiboa: Irulegiko eskutik datorren E letra, sinbolo moderno eta sotil gisa berrinterpretatua, "Bidean bat gara" leloa konposizio grafiko berezietan (ia ilustratuak direnak), kliman eta ingurumenaren zaintzan inspiratutako lore motiboak eta, oro har, gaur egungo koloreak, ehun erresistenteak, eta kirol estiloko jantzi gazteak eta erosoak.

Iruñeko denda

Halaber, abenduaren 12an, ostiralarekin, ehundaka lagun bildu ziren jai giroan, Nafarroa Oinez 2026ko dendaren irekiera ofiziala ospatzeko.
Inaugurazioa baino lehen ordea, 18:30ean Iruñeko Udaletxe Plazatik abiatu zen kalejira, hiri buruzagiaren alde zaharrean barna, dantzari eta txistulariekin Gazteluko Plazaraino. Bertan ikastolako dantzariek dantza emankizuna eskaini zuten Laba elkartearen aitzinean, bertan batu zen ikusleak oparoarendako.

Jarraian, San Fermin ikastolaren izenean Andoni Zilbeti eta Zuriñe Santxo, Vianako Erentzun ikastolaren partez, hitzekin hasi zen ekitaldi ofiziala. Aurreskua eta zinta mozketaren ondotik, bertaratu lagun ugarirendako, txokolate beroa eta opil jatea, gaztain jatea, haurrentzako jolasak eta photocall-arendako tartea ere izan zen.

INAUGURACION DE LAS TIENDAS DEL NAFARROA OINEZ 2026

Este año, el Nafarroa Oinez ha contado con dos tiendas, una en Viana, que estuvo abierta la primera parte del año y otra en Pamplona, abierta para fechas señaladas como Navidad o San Fermín.





El 23 de noviembre se inauguró la tienda oficial de Nafarroa Oinez 2026 en Viana.

Con motivo de la apertura, Erentzun y San Fermin Ikastola prepararon un programa festivo que incluyó un pasacalles con gaiteros, gigantes y dantzaris, la apertura oficial de la tienda, de la mano de las representantes de las dos ikastolas, actuación de dantzaris de ambos centros, almuerzo y un bingo solidario.

La tienda ofrece una colección muy completa y cuidada de prendas y material exclusivo, diseñada por ambas ikastolas como símbolo del proyecto compartido. No es solo ropa: es una declaración de identidad y un reflejo del lema "Bidean bat gara".

Así, los diseños presentan el logo corporativo en distintos tamaños: la E de Irulegi, reinterpretada como un símbolo moderno y sutil, el lema "Bidean bat gara" en composiciones gráficas especiales, casi ilustradas, motivos florales inspirados en el clima y el cuidado del medioambiente y, en general, colores actuales, tejidos resistentes y un estilo juvenil, cómodo y deportivo.



Tienda de Pamplona

